



## ZIZURKILGO UDALA

### OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: 2014ko irailaren 29a, astelehena

Ordua: 19:00

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Arretoa

### EGUNeko AZTERGAIAK

1.- AURREKO UDALBATZAREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2014.06.23, 2014.07.10 eta 2014.08.22).

2.- ZIZURKILGO UDAL ARMARRIA BERRIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

3.- 2014ko AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

4.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2014/141tik 2014/153ra).

5.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA ALKATEEN AUKERAKETA ZUZENERAKO PROPOSAMENAREN AURREAN

6.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO KUTXARI BURUZKO MOZIOA.

7.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO ESKOZIAR HERRIARI AGURRIK BEROENA.

8.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

Zizurkilen, 2014ko irailaren 25ean.

Alkatea.



### CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: 29 de Septiembre de 2.014, lunes

Hora: 19:00

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

### ORDEN DEL DIA

1.- APROBACION, SI PROcede, DE ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (23.06.2014, 10.07.2014 y 22.08.2014).

2.- APROBACION DEFINITIVA DEL NUEVO ESCUDO MUNICIPAL DE ZIZURKIL.

3.- APROBACION DE LA MODIFICACION DE CREDITOS DEL PRESUPUESTO 2.014

4.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (141/2014 al 153/2014).

5.- MOCION DE EH BILDI ANTE LA PROPUESTA DE ELECCION DIRECTA DE ALCALDES.

6.- MOCION PRESENTADA POR EH BILDU SOBRE KUTXA.

7.- AFECTUOSO SALUDO AL PUEBLO ESCOCES PRESENTADO POR EH BILDU.

8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 25 de Septiembre de 2.014

El Alcalde.



## ZIZURKILGO UDALA

### 2014ko IRAILAREN 29an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

### ACTA DE LA SESION DE PLENO ORDINARIO CELEBRADA EL DIA 29 DE SEPTIEMBRE DE 2.014

#### Partaideak/ Señores Asistentes:

**ALKATEORDEA / TENIENTE DE ALCALDE:**  
Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu)

#### ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Aritz Esnaola Arruti (Bildu)  
Aitor Sarasua Arruti (Bildu)  
Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)  
Eva Usandizaga Mujika (Bildu)  
Mª Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.).

#### IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamalauko irailaren hogeita bederatziko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkateordea andrearen lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu), Alkatea, eta Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.), Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu) eta Aratz Alkorta Irazusta (Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

#### 1.- AURREKO UDALBATZAREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2014.06.23, 2014.07.10 eta 2014.08.22).

Udalatzak aho batez erabaki du 2014ko ekainaren 23, uztailaren 10 eta abuztuaren 22an egindako Bilkuren Aktak onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veintinueve de Septiembre de dos mil catorce, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia de la Señora Teniente de Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo el Alcalde José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu) ni los concejales Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.), Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu) y Aratz Alkorta Irazusta (Bildu).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

#### 1.- APROBACION, SI PROcede, DE ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (23.06.2014, 10.07.2014 y 22.08.2014).

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar los Actas de los Plenos celebrados los días 23 de Junio, 10 de Julio y 22 de Agosto de 2.014



## ZIZURKILGO UDALA

### 2.- ZIZURKILGO UDAL ARMARIA BERRIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

2012ko abenduaren 1ean, Udalbatzak hasierako onarpena eman zion Zizurkilgo udal-armarri berria egiteko proposamenari, eta, bere espedientearekin batera, jendaurrean jarri zuen, hogeita hamar eguneko epean.

Jendaurrean egon zen tarte horretan, inork ez zuen aurkeztu inolako alegaziorik, ez eta erreklamaziorik ere.

Halaber, udal-armarri berriaren proposamena Eusko Ikaskuntzara bidali zen, horri buruzko txostena egin zezan.

Eusko Ikaskuntzak udal-armarri berriaren aldeko txostena egin duela ikusirik.

Kultura Batzordearen aldeko txostena ere ikusirik.

Udalbatzak bozketa egin du armarri berria onartzeko, eta emaitza honako hau izan da:

Ondoren aurkeztutako proposamena onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 6 (5 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, eta legezko gehiengo erabatekoaren aldeko botoekin, onartu du:

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Zizurkilgo udal-armarri berria. Honako hau da armarri berriaren definizioa:

"Armarri biribildua edo españiar formakoa. Zilarrekoa, mendi berde bat, surrealdean haritz hori bat duena, eta denen aurrean hiru begidun zubia; behealdean, zilar eta urdin koloreko uhinak".

### 2.- APROBACION DEFINITIVA DEL NUEVO ESCUDO MUNICIPAL DE ZIZURKIL.

El día 1 de Diciembre de 2.012 el Pleno de la Corporación acordó aprobar inicialmente la propuesta de adopción de un nuevo escudo municipal de Zizurkil y someterla, junto con su expediente, a información pública por plazo de treinta días.

Durante dicho plazo de exposición, no se presentó alegación ni reclamación alguna.

Así mismo se remitió la propuesta del nuevo escudo municipal a Eusko Ikaskuntza para que emitiera un informe al respecto.

Visto el informe favorable de Eusko Ikaskuntza sobre el nuevo escudo municipal.

Visto también el informe favorable de la Comisión de Cultura.

La Corporación, pasa a realizar la votación corresponde para su aprobación, con el siguiente resultado:

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 6 (5 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, y con el voto favorable de la mayoría absoluta legal, acuerda:

Primero.- Aprobar definitivamente el nuevo escudo municipal de Zizurkil, cuya definición es la siguiente:

"Escudo redondeado o de forma española. De plata, un monte de sinople cargado de roble amarillo con puente de tres ojos en brochante sobre el todo; campaña ondada de plata y azur".



## ZIZURKILGO UDALA

eta bere irudia da Akta honen I. eranskina.

Bigarrena.- Erabakia eta dagokion expedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onarpenerako eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

### 3.- 2014KO AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

Zizurkilgo Udal honetako 2014ko Aurrekontuari eragiten dion 2014/1 zenbakia duen kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaleak egindako txostenak dioenez, aipatutako expedientea aplikagarria zaien araudiarri egokitzent zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko txostena eta onespenn proposamena irakurri dira.

Ondoren, Udalbatzak aldaketa hauek onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

- Aldeko botoak: 5 (5 Bildurenak).
- Aurrako botoak: 0.
- Abstentzioak: 1 (1 E.A.J.-P.N.V.rena).

Beraz, botuen gehiengoz, onartzen da:

Lehena.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion I/2014 zenbakia duen kreditu gehigarrien bidez egin beharreko Kreditu Aldaketarako expedientea onestea, proposamenaren eta Akta honen II Eranskinan argitaratzen den kapitulukako laburpenaren arabera.

y cuya imagen es la del Anexo I de este Acta.

Segundo.- Remitir el acuerdo y el expediente correspondiente a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación definitiva y publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

### 3.- APROBACION DE LA MODIFICACION DE CREDITOS DEL PRESUPUESTO DE 2.014

Dada lectura del expediente de modificación de créditos nº I/2014, mediante créditos adicionales que afecta al Presupuesto de 2.014 de este Ayuntamiento de Zizurkil.

Visto el informe emitido por el Secretario-Interventor, quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales de Gipuzkoa.

Visto el informe favorable y propuesta de aprobación formulado por la Comisión Informativa de Hacienda.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación corresponde para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 5 (5 de Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 1 (1 de E.A.J.-P.N.V.).

por lo que, por mayoría de votos, se acuerda:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos nº I/2014, mediante créditos adicionales que afecta al Presupuesto del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y resumen por capítulos que se detalla en el Anexo II de este Acta.



## ZIZURKILGO UDALA

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Expediente honi Aurrekontua onesteko czarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

### 4.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2014/141tik 2014/153ra).

2014/141etik 2014/153ra zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2014ko abuztuaren 22tik irailaren 23ra Alkateak sinatutakoak. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### 5.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA ALKATEEN AUKERAKETA ZUZENERAKO PROPOSAMENAREN AURREAN.

Akta honen III. Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Ondoren aurkeztutako proposamena onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 6 (5 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalatzak, aho batez, aurkeztutako Mozioa onartzea erabaki du.

### 6.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO KUTXARI BURUZKO MOZIOA.

Akta honen IV. Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Segundo.- Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto.

### 4.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (141/2014 al 153/2014).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 141/2014 al 153/2014 firmados por la Alcaldía entre el 22 de Agosto y el 23 de Septiembre de 2.014 cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

### 5.- MOCION DE EH BILDU ANTE LA PROPUESTA DE ELECCION DIRECTA DE ALCALDES.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo III del presente Acta.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 6 (5 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar la Moción presentada.

### 6.- MOCION PRESENTADA POR EH BILDU SOBRE KUTXA.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo IV del presente Acta.



## ZIZURKILGO UDALA

Ondoren aurkeztutako proposamena onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 5 (5 Bildurenak).
- Aurka: 1 (1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak, botuen gehiengoz, aurkeztutako Mozioa onartzea erabaki du.

M<sup>a</sup> Angeles Lazcano zinegotziak (E.A.J.-P.N.V.) azaldu du kontrako bota eman duela, ekainaren 23ko osoko bilkuran landutako antzeko mozio bati emandako erantzunean adierazitako arrazoia oinarritzat hartuz, zehazki, erantzunaren 5. puntuaren azaldutako oinarritzat hartuz. Honako hau dio puntu horrek:

“Kutxako gobernu organoek eskatzen die aurrezki kutxa banku fundazio bihurtzeko prozesuan gardentasunez jokatzeko, indarrean dagoen legedia estu betez eta banku fundazioaren patronatuaren Gipuzkoako gizartearen gehiengoa eta aniztasuna errespetatuz ordezkatuta egoteko hastapenarekin bat.”

### 7.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO ESKOZIAR HERRIARI AGURRIK BEROENA.

Akta honen V. Eranskinean jasota dago aurkeztutako Agurra.

Ondoren aurkeztutako proposamena onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 6 (5 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako Agurra onartzea erabaki du.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 5 (5 de Bildu).
- Votos en contra: 1 (1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

La concejal M<sup>a</sup> Angeles Lazcano (E.A.J.-P.N.V.) explica su voto en contra, basándose en las razones expuestas en la contestación dada a una moción similar tratada en el Pleno celebrado el pasado día 23 de Junio, y más concretamente en lo expuesto en el punto 5º de su respuesta a la misma, que dice:

“Solicita a los órganos de gobierno de Kutxa que actúen con transparencia en el proceso de conversión de caja de ahorros a fundación bancaria, cumpliendo estrictamente la legislación vigente y respetando la mayoría y la diversidad social de Gipuzkoa en el patronato de la fundación bancaria, conforme al principio de representación.”

### 7.- AFECTUOSO SALUDO AL PUEBLO ESCOCES PRESENTADO POR EH BILDU.

El Saludo que se presenta es el que se refleja en el Anexo V del presente Acta.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 6 (5 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Saludo presentado.



## ZIZURKILGO UDALA

M<sup>a</sup> Angeles Lazkano zinegotziak (E.A.J.-P.N.V.) adierazi du agur hori Eskoziako erreferenduma egin aurretik landu beharko litzatekeela, baina dokumentuak dioenarekin bat datorrela, eta, horregatik, alde bozkatu duela.

Bilduk erantzun dio arrazoi duela atzerapenarekin dabiltzala esatean, baina, kasu honetan, garrantzitsuena dela babesia adieraztea horren garrantzi handiko gertaerari.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogei minituak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.  
ALKATEA.

Vº Bº  
EL ALCALDE.



La concejal M<sup>a</sup> Angeles Lazkano (E.A.J.-P.N.V.) expone que esta Saludo debería haberse tratado antes de la fecha del referéndum escocés, pero está de acuerdo con el espíritu del documento y por eso vota a favor.


Desde Bildu le contestan que tiene razón en lo relacionado al retraso, pero que, en este caso, lo importante es dar apoyo a un hecho que consideran trascendental.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y veinte minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



## I ERANSKINA – ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA





## II ERANSKINA – ANEXO II

ZIZURKILGO UDALA

### MODIFICACION DE CREDITOS 1/2014

#### PRESUPUESTO 2014 - PARTIDAS DE GASTO CUYA ASIGNACION AUMENTA

			PRESUPUESTO	MODIFICACION	NUEVO
			ACTUAL		PRESUPUESTO
<b>CAPITULO 1</b>					
0100.131.420.00.01	279	RETRIB. MONITOR JUVENTUD	- €	2.400 €	2.400 €
0100.131.451.00.01	15	RETRIB. MONITORES CAMPAÑAS OCIO	10.900 €	300 €	11.200 €
0100.160.420.00.01	280	SEGURIDAD SOCIAL: MONITOR JUVENTUD	- €	900 €	900 €
0100.162.121.00.01	49	CURSOS FORMACION: FUNCIONARIOS	50 €	300 €	350 €
0100.163.121.00.05	53	SEGUROS VIDA: PERSONAL LABORAL	900 €	50 €	950 €
		<b>TOTAL CAPITULO 1</b>	<b>11.850 €</b>	<b>3.950 €</b>	<b>15.800 €</b>
<b>CAPITULO 2</b>					
1100.201.452.00.01	14	ARRENDAMIENTO LOCAL EDUCADORES JUVENTUD	2.000 €	325 €	2.325 €
0600.210.511.00.01	62	REPAR.MANT.CONSERVAC: VIAS PUBLICAS	3.000 €	3.000 €	6.000 €
0500.211.313.00.01	65	REPAR.MANT.CONSERVAC: HOGAR JUBILADO	50 €	50 €	100 €
0600.213.432.00.01	82	REPAR.MANT. VEHICULOS OBRAS Y SERVICIOS	2.000 €	1.500 €	3.500 €
0300.221.421.03.01	183	SUMINISTRO ENERGIA JESUSEN B. IKASTOLA	- €	6.000 €	6.000 €
0100.221.121.01.02	272	SUMINISTRO AGUA LOCAL BULANDEGI 23	- €	100 €	100 €
0100.221.121.01.02	192	SUMINISTRO AGUA LOCAL OBRAS Y SERVICIOS	- €	150 €	150 €
0500.221.313.00.09	270	PROD. LIMPIEZA/ASEO HOGAR DEL JUBILADO	- €	500 €	500 €
0600.221.432.00.09	129	PROD. LIMPIEZA/ASEO LOCAL OBRAS Y SERVICIO	- €	250 €	250 €
0200.221.222.00.11	136	COMPRA UTILES Y HTAS. POLICIA MUNICIPAL	200 €	200 €	400 €
0300.222.421.05.01	176	TELEFONO: JESUSEN BIOTZA IKASTOLA	- €	150 €	150 €
0100.224.121.00.01	158	SEGUROS. EDIFICIOS Y RESPONSAB. CIVIL	12.250 €	350 €	12.600 €
0600.224.432.00.02	160	SEGUROS. EDIFICIOS Y RESPONSAB. CIVIL	1.500 €	125 €	1.625 €
0600.226.432.00.01	105	CANON UTILIZACION BIENES DOMINIO PUBLICO	550 €	10 €	560 €
0100.226.121.00.03	167	PUBLICIDAD-PROPAGANDA LISTIN TELEFONICO	400 €	25 €	425 €
0700.226.451.09.06	187	GASTOS ORGANIZACIÓN FESTEJOS	4.500 €	11.000 €	15.500 €
0100.227.120.00.02	281	MANTENIMIENTO SISTEMA ALARMA ANTI-ROBOS	- €	400 €	400 €
		<b>TOTAL CAPITULO 2</b>	<b>26.450 €</b>	<b>24.135 €</b>	<b>50.585 €</b>
<b>CAPITULO 4</b>					
0500.481.313.02.01	258	SUBV. ENTIDADES SOCIALES	- €	250 €	250 €
		<b>TOTAL CAPITULO 4</b>	<b>- €</b>	<b>250 €</b>	<b>250 €</b>



ZIZURKILGO UDALA

<b>CAPITULO 6</b>					
0300.622.421.00.01	209	NUEVA ZONA RECREO EN SAN MILLAN ESKOLA	21.020 €	5.250 €	26.270 €
0600.622.432.00.01	199	REFORMAS EN LOCAL BRIGADA OBRAS	- €	10.000 €	10.000 €
0400.622.452.00.01	228	ELBARRENAKO FUTBOL ZELAIA BERRITZEA	337.000 €	48.000 €	385.000 €
0600.623.432.00.04	207	INVERSION HERRAMIENTAS OBRAS Y SERVICIOS	- €	2.000 €	2.000 €
1300.623.432.01.04	54	INVERSION HERRAMIENTAS URBANISMO	- €	500 €	500 €
0500.625.313.00.01	164	MUEBLES NUEVO HOGAR DEL JUBILADO	- €	2.000 €	2.000 €
0100.629.120.00.01	282	INSTALACION DE ALARMAS ANTIRROBO	- €	1.250 €	1.250 €
0400.643.452.00.01	283	PROYECTO, DIR.OBRA Y SEGUR. CAMPO FUTBOL	- €	18.000 €	18.000 €
0100.649.120.00.01	284	NUEVO SISTEMA PARA INVENTARIO DE BIENES	- €	9.500 €	9.500 €
0700.685.451.00.99	219	INVERSION EN ENSERES DE CULTURA	- €	500 €	500 €
0700.689.451.00.01	256	INVERSION EN GIGANTES Y CABEZUDOS	- €	5.250 €	5.250 €
<b>TOTAL CAPITULO 6</b>				<b>358.020 €</b>	<b>102.250 €</b>
<b>TOTAL INCREMENTOS</b>				<b>396.320 €</b>	<b>130.585 €</b>
<b>526.905 €</b>					



ZIZURKILGO UDALA

**PRESUPUESTO 2014 - PARTIDAS DE GASTO CUYA ASIGNACION DISMINUYE**

			PRESUPUESTO	MODIFICACION	NUEVO
			ACTUAL		PRESUPUESTO
<b>CAPITULO 2</b>					
1100.226.452.01.06	177	COM. JUVENTUD, GAZTEZULO-GOIKO DINAMIZACIO	7.000 €	- 3.300 €	3.700 €
		<b>TOTAL CAPITULO 2</b>	<b>7.000 €</b>	<b>- 3.300 €</b>	<b>3.700 €</b>
<b>CAPITULO 4</b>					
0700.481.451.00.01	264	SUBV. A ENTID. SOCIALES-ORGANIZAC. FIESTAS	63.930 €	- 10.800 €	53.130 €
		<b>TOTAL CAPITULO 4</b>	<b>63.930 €</b>	<b>- 10.800 €</b>	<b>53.130 €</b>
		<b>TOTAL DISMINUCIONES</b>	<b>70.930 €</b>	<b>- 14.100 €</b>	<b>56.830 €</b>

**PRESUPUESTO 2014 - PARTIDAS DE INGRESO CUYA ASIGNACION AUMENTA**

			PRESUPUESTO	MODIFICACION	NUEVO
			ACTUAL		PRESUPUESTO
<b>CAPITULO 1</b>					
0900.114.000.00.01	4	IMPTO. S/ INCREMENTO VALOR TERRENOS	15.000,00 €	14.235,00 €	29.235 €
		<b>TOTAL CAPITULO 1</b>	<b>15.000 €</b>	<b>14.235 €</b>	<b>29.235 €</b>
<b>CAPITULO 6</b>					
1300.600.000.00.01	58	VENTA DEL TERRENO DEL AREA 10	71.925,00 €	90.170 €	162.095 €
		<b>TOTAL CAPITULO 6</b>	<b>71.925 €</b>	<b>90.170 €</b>	<b>162.095 €</b>
<b>CAPITULO 7</b>					
0400.720.000.00.01	48	DIPUTACION: SUBV. FUTBOL ZELAIA	150.000,00 €	12.080,00 €	162.080 €
		<b>TOTAL CAPITULO 7</b>	<b>150.000 €</b>	<b>12.080 €</b>	<b>162.080 €</b>
		<b>TOTAL AUMENTOS</b>	<b>236.925 €</b>	<b>116.485 €</b>	<b>353.410 €</b>

**TOTALES DISMINUCION GASTO + INCREMENTO INGRESOS =**

**130.585 €**



### III ERANSKINA – ANEXO III

ZIZURKILGO UDALA  
2016 25  
BARTA  
825

ZIZURKILGO UDALA

ALKATEEN AUKERAKETA ZUZENERAKO  
PROPOSAMENAREN AURREAN

#### MOZIOA

Herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izanik, Udalen jarduera ireki, zabal eta demokratikoan sakontzea, eguneroko ariketa izan beharko litzateke. Hauteskundeen aurretik, egunean bertan eta ondoren ere, Udalek herritarren borondatearen isipilu izan behar dute. Aldi berean, gainerako interes partidista, ekonomiko eta finantzieroren gainetik, herritarrenganako zerbitzua eta konpromisoa izango dira etengabe, Udal politika ezaugarrituko duten adierazleak.

Baina gure Udalek aurrekinik gabeko erasoak jaso izan dituzte azken urteetan. Europatik proposatu eta Madriletik inposatu dituzten murrizketen gauzapenaren bidez, ahalmen politikoak eta ekonomikoak erabat mugatu zaizkie Udalei, lehendik larria zen egoera, oraindik ere larriago bilakatuz. Madriletik inposatu nahi izan zaizkigun neurri horiek guztiek, udalen autonomia suntsitzeaz gain, Udalen eskuetan dauden baliabideak esku pribatuetara bideratzeko ate guztiak irekitzen saiatu dira. Eremu publikoa eta herritarra ahulduz eta era berean eremu pribatuan mugitzen diren enpresak indartuz. Azken urteetako udalen jarduera eredu, berez ahula izanik ere, errotik okerrera aldatu nahi izan da Madrilgo Gobernutik.

Behin eta beriz, Hego Euskal Herriko instituzio guztiak, udalen autonomia indartzearen beharra eta udalak herritarrengana gerturatzeko neurriak aldarrikatu arren, Madriletik entzungor egin zaigu eta inposaketarekin erantzun zaigu.

Azken urte hauetan neurri hauek bultzatu eta udalen eskumen politikoak murriztu dituen PP alderdia, alkatearen aukeraketa zuzenerako

ANTE LA PROPUESTA DE ELECCIÓN DIRECTA  
DE ALCALDÍAS

#### MOCION

Siendo las instituciones más cercanas a la ciudadanía, debería ser un ejercicio diario profundizar en el funcionamiento abierto, plural y democrático de los ayuntamientos. Estas instituciones deben ser el reflejo fidedigno de la voluntad popular antes, durante y después de las elecciones. Asimismo, por encima de cualquier interés partidista, económico y financiero, el servicio y el compromiso para con la ciudadanía deben de ser, sin excepción alguna, las características primordiales de la política municipal.

Sin embargo, nuestros ayuntamientos están sufriendo durante estos últimos años ataques políticos sin precedentes. Por medio de los recortes y restricciones que Europa propone y Madrid impone, se han limitado extraordinariamente las capacidades políticas y económicas de los ayuntamientos, agravando una situación que ya era entonces suficientemente grave. Todas y cada una de las medidas que se nos quieren imponer desde Madrid, además de destruir la autonomía municipal, intentan abrir todas las puertas para que los recursos de que disponen los ayuntamientos pasen a manos privadas. Debilitando, de este modo, el ámbito público a favor de las empresas que se mueven en el ámbito privado. Aún así, aún siendo de por sí sumamente débil, el gobierno de Madrid quiere cambiar de raíz el modelo municipal de estos últimos años y modificarlo a peor.

Reiteradamente, a pesar de que todas las instituciones de Euskal Herria sur hayan proclamado y reclamado la necesidad de fortalecer la autonomía municipal y de tomar medidas que acerquen los ayuntamientos a la ciudadanía, Madrid permanece ajeno a estas reivindicaciones y responde con la imposición.

El mismo Partido Popular que ha venido restringiendo las competencias políticas municipales e impulsando durante estos últimos



## ZIZURKILGO UDALA

proposamen batekin datorkigu. Oraindik osotasunean ezagutzen ez baldin bada ere, alkatea zuzenean zerrendarik bozkatueneko zerrendaburu izendatzeko proposamena jarri da mahaiaren gainean. Udal hauteskundeetarako hilabete gutxi falta diren honetan, nagusiki PP-ren alderdi interesei erantzuten dien proposamen baten aurrean gaude. PP-k ohiko duen bezala eta beste behin ere, inoren iritzia kasurik egin gabe (eta bereziki Euskal Herriko udal eta toki erakundeetatik egiten diren aldarrakapenei kasurik egin gabe) ari da urratsak ematen. Bere interes politiko alderdikoi eta zentralistak inposatu nahi ditu gure udaletan, herritarren gehiengoaren iritzia alde batera utzita. Alkatetza eta Udal Gobernuak, herritarren gehiengoaren borondarea ordezkatu behar dute. Alkatearen erreferentzia garrantzitsua da, baina ez eredu presidentzialista baten arduradun gisa, herritarren gehiengoaren ordezkari gisa baizik.

Hauteskunde Legearen aldaketa sakon bat behar dela uste dugu. Baina ez alderdi bataren edo bestearen interesak defendatzeko, baizik eta Euskal Herritarrok gure udal eta instituzio egitura nolakoa izan behar duen erabakitzeko aukera izateko. Gure udaletan demokraziari ateak irekitzeko, jarrera presidentzialista eta autoritarioak alde batetara uzteko eta herritarren hitzak udaletan zuzenean indarra izan dezan. PP-k aurkeztu duen proposamenaren kontrako norabidean egin behar dira aldaketak.

Hau guztia kontuan izanik, ZIZURKILgo Udalak, honako puntu hauek onartzen ditu:

1.- Udal honek, Madrilgo Gobernutik PP-k alkatea zuzenean zerrendarik bozkaturiko zerrendaburu izendatzeko burtu nahi duen Lege Aldaketaren aurkako jarrera adierazten du. Udal eta herritarren interesen gainetik, PP-ren alderdi interesei

años este tipo de medidas, pone sobre la mesa una propuesta para la elección directa de las alcaldías. Aunque no se conoce todavía en su totalidad, se ha hecho pública la propuesta para proclamar y nombrar directamente alcalde a la persona cabeza de lista de la candidatura más votada. A pocos meses de las elecciones municipales, nos hallamos con una propuesta que responde principalmente a los intereses del Partido Popular. Como es habitual en este partido y, haciendo caso omiso a cualquiera otra opinión (especialmente, sin hacer caso alguno a las reivindicaciones realizadas por los ayuntamientos y entidades locales de Euskal Herria), el PP sigue dando pasos. Sigue dando pasos, imponiendo sus intereses políticos partidistas en nuestros municipios y dejando de lado la opinión de la mayoría de la ciudadanía. Las alcaldías y los gobiernos municipales deben representar la voluntad mayoritaria de la ciudadanía. El papel referencial de la alcaldía es importante, pero no como representante de un modelo presidencialista, sino como representante de la mayoría ciudadana.

Creemos que es necesaria una reforma profunda de la ley electoral. Pero no para defender los intereses de un partido o de otro, sino para que la ciudadanía vasca tenga poder de decisión al definir la estructura municipal e institucional. Con la finalidad de abrir las puertas de nuestros ayuntamientos a la democracia, dejando a un lado posturas presidencialistas y autoritarias, propiciando que la palabra de la ciudadanía tome su fuerza directamente en nuestros municipios. La reforma a realizar deben ir en sentido directamente contrario a la propuesta realizada por el PP.

En base a todo ello, el ayuntamiento de ZIZURKIL acuerda los siguientes puntos:

1. Este ayuntamiento rechaza la reforma de ley que desea llevar a cabo el PP desde el gobierno de Madrid para proclamar y nombrar alcalde directamente a la persona cabeza de lista de la candidatura más votada. Ya que el PP prioriza sus



## ZIZURKILGO UDALA

erantzuten dietako. Norabide horretan, udal honek, interes alderdikoiek sustaturiko Hauteskunde Legearen edozein aldebakarreko aldaketa errefusatzen du.

2.- Udal honek, Euskal Herriko udal eta toki entitateen borondatea errespetatu eta gure egitura instituzionala inposaketa eta murrizketarik gabe, Euskal Herritarren beharren arabera antolatzeko eskubidea aldarrikatu nahi du.

3.- Udal honek, bere jardueran herritarren parte-hartzea eta demokrazia zuzenerako tresnak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, udalaren osaketan ez-ezik udaleko erabaki garrantzitsuenen aurrean ere.

4.- Udal honek, ebaZen honen berri, herritarrei eta Madrilgo Gobernuari emateko erabakia hartzen du.

intereses partidistas por encima de los intereses de municipios y ciudadanía. En este sentido, esta corporación rechaza cualquier reforma unilateral de la ley electoral promovida por intereses partidistas.

2. Este ayuntamiento quiere reivindicar el respeto a la voluntad de las entidades locales y municipales de Euskal Herria y su derecho a organizarse en base a las necesidades de la ciudadanía vasca.

3. Este ayuntamiento adquiere el compromiso de impulsar herramientas para la participación ciudadana y para la democracia directa, tanto en la propia conformación de la corporación como en las decisiones municipales más relevantes.

4. Este ayuntamiento hará llegar esta resolución al gobierno de Madrid y la divulgará a la ciudadanía.

Euskal Herrian, 2014ko irailean.  
EH BILDU

Euskal Herria, septiembre de 2014  
EH BILDU



## IV ERANSKINA – ANEXO IV

ZIZURKILGO UDALA

ZIZURKILGO UDALA	
204	RA. 25
SARKEREN EKINEZTIOA	
Zentzula	826

### ZIZURKILGO UDAL BATZARI

Ia 150 urte inguru pasatu dira Donostiako (Bilbo, Gasteiz...) Udalak eta Gipuzkoako (Araba, Bizkaia...) Aldundiak Caja de Ahorros de San Sebastian eta Caja de Ahorros de Gipuzkoa sortu zituztenetik. Zalantzak ez dago, eta historiari errepaso txiki bat ematea nahikoa litzateke, kutxa horiek sortu zirenean, hasieratik, funtzió publiko eta sozial bat betetzeko sortu zirela.

Funtsean, honokoa zen aipaturiko helburu eta funtzió publiko eta soziala: bertako herritarren aurrezkiak, bertan inbertituak izateko apustua bermatzea. Horretarako, herritarrei eta familiei finantza-zerbitzua eskaini, bertako enpresari txikiei finantziazioa bermatu, udalen finantziazio eta inbertsioetan lagundu, bertako ekonomiarentzat estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bultzatu eta hori gutxi balitz, lortutako etekinak gizarte-ekintzan inbertitzea izan dute kuxek urteetan helburu.

Une honetan ordea, erraz esan dezakegu kutxen bategitetik sortu den Kutzabanken ildoa ez dela bertako herritarrei eta ekonomiari begirako funtzió publiko eta sozialabetetzen ari. Aitzitik, negozio hutsa eta bidegabea da besterik gabe bultzatzen ari dena. Hori gutxi balitz, kutxak banku-fundazio bihurtzeko hautuarekin, kontrol publiko eta soziala murriztuko da eta jada iragarri den pribatizazioaren bideari atea ireki dakizkioke, aipaturiko funtzió publiko eta sozial hori behin betirako desagerraraziz.

Historikoki bete duten funtziogatik, zein egungo egoera ekonomiko zailean bete beharko luketen funtziogatik, garrantzitsua da oso bestelako norabidean doan bide berri bat ekitea eta hortxe kokatzen ditugu hain zuzen Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu duen proposamenaren helburuak. Horrexe diote hitzez hitz:

1. "Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutzaren izaera publiko eta soziala bermatzea du lehen helburu."
2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, izaera publiko eta sozial horren bidez, entitate fundatzaileek hasieratik finkatutako helburuak berreskuratu nahi ditu XXI. mendeko Euskal Herrira egokitutako Kutzabank eta kutxen izaera eta helburuak bermatz.
3. Bizi dugun krisi ekonomiko latz honetatik ateratzeko eta Gipuzkoa eta Euskal Herri Berria eraikitzeko finantza-tresna publiko eta soziala izatea.



## ZIZURKILGO UDALA

4. Bertako ekonomia errealaren mesedetan arituko den finantza-entitatea izatea eta herri zein eskualdeetako errealitate sozialarekin eta ekonomikoekin lotuta egotea, izan daitezkeen behar ekonomiko eta sozialen aldeko inbertsioak eginez:

- ▲ Bertako autonomoei, merkatariei, enpresari txikiei eta kooperatibistei finantziazioa bermatzea.
- ▲ Udalei aurreikusi ditzaketen inbertsioei begira, finantza-baliabideak eskaintza.
- ▲ Kutxen sorreran egon zen langileekiko eta familiekiko begirunea berreskuratzea eta etxe-kaleratzeak edota IRPH bezalako jarduerekin amaitzea eta familiek dituzten finantza beharretarako eskaintza eraginkor eta justua eskaintza.
- ▲ Oro har, herriz herri hedatua egongo den finantza entitatea izatea. Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko etengabeko konpromisoa izango duena, bai langile kopuru eta bitarteko ikuspuntutik zein zerbitzuaren kalitate edota euskararen erabilpenarengatik ere.
- ▲ Sorreratik hain garrantzitsua izan den gizarte-ekintzarekiko konpromisoak berresteak eta betetza eta gizarte-ekintzak XXI. mendean bete behar duen papera denon artean berraztertza eta garatzea.”

Kutxa banku-fundazio batean ez bihurtzeko (Bizkaia eta Araban, banku-fundazio izateari uzteko) eta aipatu helburu horien norabidean arituko diren kutxak eta Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat bermatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak akzioen eskualdatze-prozesu bat proposatu du, hain zuzen ere, izaera publiko eta soziala ahalbideratzen duen aukera erreal, legal eta eraginkor gisa.


Hori guztia kontutan hartuta Zizurkilgo Udalak honoko erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Zizurkilgo Udalak herritarren, familien eta bertako ekonomiaren mesedetan arituko den Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat aldarrikatu nahi du.
- 2.- Zizurkilgo Udalak Kutzaren (GIPUZKOAN) eta Kutxabanken izaera publiko eta soziala bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta erabakiak hartzeko borondate eta prestutasun irmoa du.



## ZIZURKILGO UDALA

3.- Norabide horretan, Zizurkilgo Udalak Kutxako (GIPUZKOAN) batzarrari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu duen eskualdatze-prozesu hori martxan jar dezala, Gipuzkoako Kutxa banku-fundazioa bihurtu ez dadin eta herritarren eta bertako instituzioen izaera publiko eta soziala bermatzen jarraitu ahal izateko.





## V ERANSKINA – ANEXO V

ZIZURKILGO UDALA	
2014 IRA. 25	
GARRIKA EKREGISTROA	
Zerrenda	827

ZIZURKILGO UDALA

### ESKOZIAR HERRIARI AGURRIK BEROENA

Urteetako ibilbidearen ondoren, Eskoziar herriak bere etorkizuna libreki erabakiko du datorren irailaren 18an. Eskozian, bertako herritarrek hartuko dute hitza; eta herritarrok izango dira, Eskoziak zer nolako antolaketa politikoa izan behar duen erabakiko dutenak.

Irailaren 18an Eskozian egingo den erreferendum-a, herrien askapen prozesuen ibilbidean beste urrats garrantzitsu bat izango da. Eskoziarrak, dagoeneko beren herriaren etorkizunaren jabe dira, eta laister batean, Katalunia, Euskal Herria eta munduko hainbat naziok ere eskubide hori egikarituko dugu. Herrien askatasunaren aldeko atzeraezineko prozesu bat abian dagoelako mundu mailan.

Egun historiko honen aurrean, honako adierazpen hau egin nahi dugu instituzio honetatik:

1.- Eskoziar herria zoriondu nahi dugu, libreki etorkizuna erabakitzeko burutzen ari diren ariketagatik. Herri orok duen eskubidea praktikara eraman da.

### AFFECTUOSO SALUDO AL PUEBLO ESCOCÉS

Tras una larga trayectoria, el pueblo escocés decidirá libremente su futuro el próximo 18 de septiembre. Los ciudadanos escoceses tomarán la palabra en Escocia y será la ciudadanía escocesa la que decidirá qué tipo de reforma política se realizará en Escocia.

El referéndum que se llevará a cabo el próximo 18 de septiembre en Escocia será un importante paso adelante en el camino de liberación de los pueblos. La ciudadanía escocesa ya es dueña del futuro de su pueblo y pronto, Cataluña, Euskal Herria y otras muchas naciones materializarán este mismo derecho. No obstante, ya está en marcha a nivel mundial un proceso irreversible en pos de la liberación de los pueblos.

Ante este histórico día, este ayuntamiento realiza esta declaración institucional:

1. Felicitamos al pueblo escocés por el ejercicio de libertad que están llevando a cabo para decidir su futuro. Se llevará a la práctica el derecho que todo pueblo tiene.



ZIZURKILGO UDALA

2.- Munduko herri askeen historiarako geratuko den data izanik, eta Eskoziar herritarrak beraien etorkizuna libreki erabakitzentz ariko diren egunean bertan, gure babesu adierazteko, Eskoziako bandera jarriko dugu instituzioaren fatxada nagusian, ikusgarri eta lehentasunekoia izango den tokian batean.

2.Tratándose de una fecha que quedará para la historia de los pueblos libres y con el fin de expresar nuestro apoyo a la ciudadanía escocesa el mismo día en que decidirán libremente su futuro, colocaremos la bandera escocesa en la fachada principal del ayuntamiento, en un lugar preferente y visible.

Euskal Herrian, 2014ko irailean

Euskal Herria, septiembre de 2014

